

**LOIOLA, XANTIANA, EKAIN, HAIZE**

## **EN TOL SARMIENTO XALBADORREN**

2019ko ekainaren 5a

2019ko maiatzaren 9ean, ostegun batez Iñigo, En Tol Sarmientoren kantaria, jin da Xalbadorrera. Irakasleek ikasleei sorpresa egin nahi izan diete, baina ez da luzaz izan sekretu bat, berria goiz guzian hedatu baita. Iñigo kolegiara heltzean ikasle guziek "BREBETA EUSKARAZ" kamiseta ubela jantzi dute, hau da, kolegioaren kamiseta.

Goizean, 5.ek galderak pausatu dizkiote Iñigori. Kontzertua, guti gora behera, arratsaldeko 13:30etan hasi da. Kontzertua hasi aitzin galdera batzuk pausatu ahal izan dituzte ikasleek. Kontzertuan, kantuak ez ditu osoki kantatu, kopia nagusiak bakarrik, eta errepikak bizpahiru aldiz denekin batera. Kontzertu denboran ikasleek ezin izan dituzte mugikorrak atera argazkiak eta bideoak hartzeko. Mikelek, teknologia irakasleak, hartu ditu, gero Xalbadorren Webgunean emateko.

Kolegioko hesian moto batzuk aparkatu dira entzuteko En Tol Sarmientoren kantaria.

Ikasleek arratsalde guzian pasatu dute kantatzen, eta bideo bat ere grabatu dute Brebeta euskaraz galdetzeko. Hala ere, 45 minutuko saioa ukan dute etxerat sartu aitzin.

